

2003-02-20

kioskoa

Iban Arregi

Gomendioei kasurik ez

Nazio Batuen Erakundeko Torturaren Aurkako Batzordeak gomendio argiak egin zizkion 2002ko azaroan Espainiako Estatuari. Besteak beste, atxilotua inkomunikazio egoera dagoelarik polizi etxeetan egiten diren galdeketa guztiak bideoz grabatzeko eskatu zuen Nazio Batuetako Batzordeak. Gaia garrantzitsua zen arren, gomendio horri ez zioten batere kasurik egin egunkari ia guztiek. Herenegun, atxilotuen osasun egoera bermatzeko Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailak neurriak hartuko dituela jakin genuen, eta horrek bai izan duela isla handiagorik hainbat egunkaritan. **Deia**-k, esaterako, azaleko titulu nagusia eskaini zion gai horri —«Ertzaintzak atxilotuen tratatu txarrei buruzko salaketa faltsuak ekiditeko ekimena jarri du abian»—, eta Juan Carlos Latxaga zuzendariordeak ere gaiaren gaineko iritzia eman zuen. **El Mundo**-k ere aipatu zuen atzo Herri-zaingo Sailaren azkeneko ekimena, eta **Irtizia** saileko komentarioan txalotu ere egin zuen: «Oinarrian asmatu egin du [Herri-zaingo Sailak] neurri horrekin, Estatuako segurtasun indarrek tratatu txarrak eragiten dituztela dioten salaketak ezerezean utziko direlako horrela». **El Correo** eta **El Diario Vasco** egunkariak ere, besteak beste, aipatu egin zuten Herri-zaingo Sailaren ekimena. Azken batean, Nazio Batuen Erakundearen Torturaren Aurkako Batzordeak 2002ko azaroan egin dako gomendio haiek baino askoz presentzia handiagoa izan du Herri-zaingo Sailak onartu duen protokoloak; eta, bitartean, gomendio haiei kasurik egin gabe segitzen dute egunkariak eta Estatuako segurtasun indarrek.

Egunkaria 3.789. zenbakia

Ohorezko Lehendakaria: Martin Ugalde

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: Joan Mari Torrealdeai

Kontseilari Ordezkarria: Iñaki Uribe

Zuzendaria: Martxelo Otamendi

Gerentea: Begoña Zubelzu

Publizitatea: Igor Sota

Egoitza Nagusia: Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel.: 943300222
Erredakzio faxa: 943300255-943590354 Publizitate faxa: 943300707

Webgunea: www.egunkaria.com

Posta elektronikoa: egunkaria@egunkaria.com

Publizitatea: publi@egunkaria.com

Batzorde Parekidea: 72564 E. Lege Gordailua: SS 800/90 ISSN 1134-840X
OJDK IKUSKATURIKO HEDAPENA

ORDEZKARITZAK ■ Araba: San Antonio, 20-1. ezker. 01005 Gasteiz
Tel.: 945233872 Faxa: 945233873 Publizitatea: Tel.: 945131966

Nafarroa: Iratxe Monasterioa, 45-13. esk. (Irrintzi dorrea) 31011 Iruñea
Tel.: 948178078-79 Faxa: 948178077 Tel.: Publizitatea: 948176686

Bizkaia: Egoia Jenerala, 3-behea. 48010 Bilbo Tel.: 944104046 Faxa: 944103715
Tel.: Publizitate Orokorra: 944701199-80 Publizitate Lokala: 944701114

Lapurdia, Nafarroa Beherea, Zuberoa: Pelletier 35,
64100 Baiona Tel.: 559593575 Faxa: 559257511

martintxo



hizpideak

Memoria historikoa

«Kontua ez da gorpuak aurkitzea bakarrik; haien historia berregitea garrantzitsua da», esan digu Francisco Etxeberria Aranzadiko eta Gerra Zibileko Desagertuei Buruzko Lan Taldeko kideak. Frankismoa amaitu eta mende laudenera asko baitago egiteko memoria berreskuratzeko. Bide horretan, Nafarroako Parlamentuan ostiralean aurkeztu behar dute desagertuen aldeko adierazpen instituzionalaren zirriborroa, eta Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadik lankidetzat hitzarmena adostu dute. Euskal Herriko historiaren pasarte latzenetakoa isilpean jarrai ez dezan. Nafarroako desagertuen senideek dioten bezala, gizarteak bere buruarekin duen «zor tragikoa» kitatzeko.



Evo Morales, Boliviako oposizioko buru eta sindikalista.

Bolivia: krisia ez da amaitu oraindik

Bolivian asteotan duten politikoa ez da amaitu oraindik. Manifestazioak, istiluak, hildakoak eta Gobernuaren dimisioa gertatu dira oso epe laburrean, Gonzalo Sanchez Lozada presidentek langileen soldatetan ezarri nahi zuen zerga proiektuak eraginda. Oposizioko buruzagi eta lider sindikal Evo Moralesek deituta, milaka herritar irten ziren kalera. Urteetako kudeaketa ekonomiko txarren ondorioak langileen kontura konpondu nahi izatea leporatu zioten Sanchez Lozadari, eta haren dimisioa exijitu zuten. Presidenteak, azkenik, erretiratu egin du egitasmoa, eta horrek gobernuaren dimisioa ekarri du. Tartean, 33 lagun hil dira, baina Sanchez Lozadak karguan dirau.

Israelen erasoak, Irakeko krisiaz baliatuta

Gutxienez 11 palestinar hil ziren atzo, Israelgo Armadak Gazan eginiko erasoan. Igandean eta astelehenean, berriz, Hamaseko zortzi kide hil zituzten. Sharonek bigarrenez hauteskundeak irabazi dituenetik, hainbat herritako auzoak birrindu dituzte, eta palestinar ugari hil. Sharon agintean denetik ez dira aste odoltsuenak izan; bai, ordea, tragikoak, oihartzun handirik izan ez arren. Izan ere, Irakeko krisia dela medio, Ekialde Hurbileko gatazkak erdigune bakar bat du: Bagdad. Ez da lehen aldia Tel Aviv beste krisi batzuek baliatzen dena, bere gatazka nahieran bideratzeko.

Israelgo Armadako tankeak eta soldaduak Hebronon.



Espainiako Gobernuko goi kargudunak, inputatuta

Espainiako Gobernuko goi kargudunak inputatu ditu Corcubiongo auzitegiak, herenegun jakin genuenez, Nunca Mais plataformak aurkeztutako kereilaren ondorioz. Gali-ziako ordezkari buru Arsenio Fernandez de Mesak eta Sustapen Ministerioako bi goi kargudunak —Itsas Merkataritzako zuzendari nagusia eta Coruñaeko Itsas kapitain ohia— deklaratu beharko dute epailearen aurrean. Prozesua luzea eta zaila izango da, Nunca Maisen abokatuak berek ziurtatu dutenez, baina pauso bat behintzat eman da. Espainiako Gobernuak gauza asko ari da gaizki egiten *Prestige* auzian, eta baliteke ondorioak jasatea; inputazio horiek oso leku txarrean jartzen dute, deseroso.